

## Prentsa-oharra

### Sektore logistikorako irtenbideak garatzen dituzte IK4-TEKNIKERek eta ULMA Handling Systems-ek

- ▶ *Zentro teknologikoak eta aipatu enpresak I+G+B eremuan baterako esperimentazio-ingurunea sortzeko akordioa sinatu dute*
- ▶ *Zentro teknologikoaren eta ULMA Handling Systems-en artean hazten ari den elkarlana sendotu du hitzarmenak*

---

(Eibar, 2016eko urriaren 18a).- IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak eta [ULMA Handling Systems](#) enpresak I+G+B eremuan baterako esperimentazio-ingurunea sortzeko xedez sinatu dute akordioa, sektore logistikoari aplikagarriak zaizkion teknologia berriak garatzea ahalbidetuko duena.

Eibarreko zentro teknologikoaren egoitzan sinatu zuten akordioa Alejandro Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak eta Juan Jesús Alberdi ULMA Handling Systems-eko zuzendari nagusiak. Bada, hitzarmenak bien arteko harremana sendotu du, erakunde kolaboratzaile gisara, eta garapen teknologikoetan elkarrekin lan egitea ahalbidetuko die; hala nola, ekipo berrien diseinuan (robotak, zamak manipulatzeko jasogailuak eta gailuak, besteren artean) eta osagai mekatronikoen automatizazioan, robotikan eta ikusmenean.

Alde batetik, IK4-TEKNIKERek ezagutza berrien sorkuntzaren eta transferentziaren bidez enpresen lehiakortasuna sustatzeko orduan dituen bokazioa eta konpromisoa finkatzen ditu hitzarmenak. Bestetik, ULMA Handling Systems-ek berrikuntza lan-eremu ezberdinetako jardueraren motor gisa sendotzeko duen nahia indartzen du.

Azken batean, Oñatiko enpresari irtenbide teknologiko aurreratuagoen garapenean urrats bat gehiago ematea ahalbidetuko dion lankidetzak gauzatzeko balio izan du egintzak.

### **Haziz doan lankidetza**

Hitzarmenak ULMA Handling Systems-en eta IK4-TEKNIKERen artean haziz doan lankidetza sendotu du. Aurretiko garapenen ondoriozkoa da aipatu elkarlana, izan ere, elkarrekin aritu izan dira robotika, osagai mekatronikoak, softwarea eta abar bezalako arloetan. Adibidez, sistema paletizatu anizkoitza garatu zuten. Horrek, Ulma Handling-en biltegi-lerro automatikoetan txertatuta, palet erreferentzianiztunen ekoizpena automatizatzea ahalbidetu du (IKPAL proiektua).

EUROC proiektu europarraren markoan, FLECOOP erabilera-kasua garatu da picking bateraturako.

Bi erakundeen arteko hitzarmenaren ondorioz, ikerketarako eta garapenerako estrategiak bateratu dira, eta garrantzi berezia hartu dute 4.0 Industria izenez ezagutzen denean, automatizazioan eta robotikan integratutako irtenbide teknologikoetan sartzen diren estrategiek.

Bestetik, nabarmendu beharra dago [Knowit](#) elkarlaneaneko adimen-plataforma abiaraziko duela laster ULMA Handling Systems-ek. Zentro teknologikoak garatu du aipatu plataforma, erabakiak hobeto har daitezten erakundeetan; bai maila operatiboan, bai maila estrategikoan.

### **IK4-TEKNIKERi buruz**

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

### **ULMA Handling Systems-i buruz**

ULMA Handling Systems enpresa ULMA taldean sartuta dago, eta Handling Systems-eko materialen arloko ingeniaritza integralean jarduten du, banaketa eta fabrikazio automatikoaren eremuari zuzendutako irtenbide logistikoetan sorta zabala edukiz. Hauentzako irtenbideak eskaintzen ditu: eskaerak prestatzeko sistemak, biltegiratze automatizatua, garraio eta sailkapen automatikoa, lerro-akaberak edo paletizazio automatikoa, baita Supply Chain Software irtenbideak ere.

**Informazio gehiago**

---

////////////////////////////////////

**IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz**

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

**GUK | Javier Urtasun**

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728